

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2018 Foru Dekretua, urtarrilaren 30ekoa. Onartzea 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, Araban autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoen eguneraketa: hau da, familia ingurunean zaintza emateko eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa

Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeari buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Estatuko Administrazio Orokorrak mendetasunen bat duten pertsonak babestuko ditu gutxieneko babes-mailan eta Arabako Lurralde Historikoak babes maila osagarrian, lege beraren hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoak, hamargarren xedapen iragankorrean, finkatzen ditu zeintzuk izango diren prestazio ekonomikoen gehieneko zenbateko berriak familia giroan zaintzeko, laguntza pertsonalekoak eta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemari atxikitako prestazioarena babes maila baxuenean, xedapena indarrean jarri zenetik mendekotasun egoera onartzeko eskatu duten pertsonentzat.

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 20ko 67/2012 Foru Dekretuak, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuarekin bat etorriz, aurreko paragrafoan aipatutako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak jasotzen ditu, bai eta finkatu ere babes maila osagarriaren barruan zeintzuk diren gehieneko zenbatekoak Arabako Lurralde Historikoarekin lotura berezia duten mendeko pertsonentzat, baldin eta egiaztatzen badute erroldatuta daudela lurralde horretan eskaera egin aurre-aurreko jarraiko hiru urtean.

Ikusi da egoki dela babes maila osagarriaren zenbatekoak igotzea Araban autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemako prestazio ekonomikoenak: familia giroan zaintzeko eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko, laguntza pertsonalekoa eta zerbitzuari lotutakoa.

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretuak, autonomiarako eta mendetasunari arreta emateko sistemaren Arabako prestazio ekonomikoak arautzen dituenak, 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, gehieneko zenbatekoak foru dekretuz onartu ditu Gobernu Kontseiluak, babes maila biak jasota.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gaurkotzea autonomiarako eta mendetasunari arreta emateko sistemaren Arabako prestazio ekonomikoen zenbatekoak, 20/2012 Errege Lege Dekretuaren ostean mendekotasuna baloratu edo berrikusi zitzaizen onuradunenak, bai eta foru dekretu hau indarrean jartzean baloratuko diren berrienak, baldin eta egiaztatzen badute Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela eta bertan bizi direla jarraiko hiru urtean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen babes maila osagarriaren arloan, erabaki honen eranskinaren arabera.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Hirugarrena. ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO

ERANSKINA

MENDEASUNA BALIOESTEKO BAREMOA, GRADUAK ETA PUNTUAK	ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA, ONDOZ ONDOKO HIRU URTEAN ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ERROLDATUTA DAUDELA EGIAZTATZEN DUTENENTZAT, BALDIN ETA EGOITZAKO ARRETA ZERBITZU IRAUNKORRA FINANTZATZEN BADA	FAMILIA INGURUAN ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	ONDOZ ONDOKO HIRU URTEAN ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ERROLDATUTA DAUDELA EGIAZTATZEN DUTEN SENIDEAK ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	ONDOZ ONDOKO HIRU URTEAN ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ERROLDATUTA DAUDELA EGIAZTATZEN DUTEN SENIDEEN LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA
	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA
III. gradua	715,07	1.030,00	387,64	482,00	715,07	798,00
II. gradua	426,12	829,00	268,79	329,00	426,12	489,00
I. gradua	300,00	523,00	153,00	185,00	300,00	335,00